

ENERGIA 3D

ENERGIA GELAN SARTZEN DA INOIZ IKUSI EZ ZENUEN BEZALA

ENERGIARI BURUZ ETA ENERGIA AURREZTEKO MODUARI
BURUZ 3DN EGIN DEN LEHENENGO FILM PEDAGOGIKOA





ENERGÍA 3D

.Energiari buruz osorik 3Dn moldatu den lehenengo tresna pedagogikoa, ia ikasle guztiengana iristeko asmoarekin.

- esperientzia aitzindaria Espainiako ikus-entzunezkoen alorrean, balio pedagogiko handikoa.
- 10 eta 15 urte arteko ikasleei zuzendutako energiari buruzko dokumental pedagogiko hau Espainiako 3D zinema aretoetan emango da eskola orduetan.
- Ikus-entzunezko honen edukia ikusleen beharrei egokitua dago, beren ikasketa mailaren arabera, eta genero dokumentala eta fikzioa konbinatzen dira.
- Ikasteko eraginkorra eta eskolako ikasgaiei lotutako kontzeptuak asimilatzeke ezin hobea, ingurune ludiko eta teknologiko batean.
- Inoiz ikusi ez zen bezala, Energia gelan sartzen da eta ikasleriaren begien aurrean agertzen da era atsegin- garrían eta dibulgazio moduan, 3D zinemaren potentzia guztiarekin.

- Ikasle eta irakasleentzat txostenak bidaltzea, maila bakoitzari eta programa ofizialari egokitutako materialarekin, heziketaren zirkulua egiteko lagungarri izango da: aurretiko lana gelan, irteera zineman dokumentala ikusteko eta ondorengo lana gelan.

- Nerabeen arteko amodio istorio bat zientzia eta teknologiaren mundura irekitako leiho bat bihurtzen da.

- AntàrtidaProduccions-en ekimena, eduki kulturetan eta 3D filmetan espezializatutako ekoiztetxea, zeinek hezkuntza eta komunikazioaren munduan ibilbide garrantzitsua egin duen.

- IDAErekin batera ekoiztua (Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua).

- Ikastetxeetako taldeentzat prezio bereziak jarriko dira.



Txosten pedagogiko bat emango dizugu, energiarekin eta energiaren aurrezpenarekin zerikusia duten curriculumeko edukiak sakontzeko.

Energiaren aurrezpenari buruz eta energia berriztagarriei buruz informazio gehiago nahi baduzu, hona jo dezakezu: www.idae.es.

Maitasun istorio batek leiho bat zabaltzen du zientzia eta teknologiaren munduari begira

Alex eta Mariak, gure ikastetxeetako milaka gaztek bezala, amodio istorio bat bizi duten bi nerabe dira, eta bere eskutik aurkezten dira energiari dagozkion kontzeptu eta alderdi garrantzitsuenak eta energia lortzeko eta kontsumitzeko moduak.

Erregai fosilak, energia hidraulikoa, eguzki energia, haize energia, nuklearra, pilak edo berotegi efektua ikasleriarren begien aurrean agertzen dira era atsegingarrian eta dibulgazio moduan eta 3D zinemaren potentzia guztia-rekin.

Teknologia aurreratuena hezkuntzaren zerbitzura

ENERGÍA 3D proiektu global baten parte da, irakasle eta ikasleen zeregina errazteko asmoarekin eta teknologia aurreratuarekin egina.

Duela gutxiko azterlan batek erakusten duen bezala, bi dimentsiotan eta ohiko bereizmenarekin ikusi ordez, bereizmen handiko 3D irudiak ikusten direnean arreta %12 altuagoa da. Hiru dimentsiotako irudien murgiltze indarrak ikusleen parte-hartze handiagoa eragiten du eta ikusleek arreta handiagoa jartzen dute, baita irudi periferikoetan ere. *ENERGIA 3D* baliabide hauek hezkuntzaren zerbitzura jartzen ditu.

Jakin-mina piztea, tresna didaktiko gisa

Kontakizunak nahiko elementu eskaintzen ditu goiko mailetakoa ikasleentzat, gelan ikusi dituzten kontzeptuak identifikatu ditzakete eta, aldi berean, gaian sakontzeko prestatu litezkeen ariketak egiteko agertokiak proposatzen dizkie.

Alderdi batzuk gidoitik kanpo utzi dira, nahita; beraz, zenbait gai eta xehetasun utzi dira, ikasleek geroago sakondu, ikertu eta lantzeko aukera izan dezaten. Ho- rrela, bere jakin-mina piztea lortuko dugu proiektzioaren ondoren proposatu daitezken erronken bidez, betiere filmean ikusitako edukietan oinarriturik edukietan oinarriturik.

Zeharkako gaitasunak garatzeko jarduerak

Estrategia didaktikoak elkarlanean oinarritutako lan me- todologiak proposatzen ditu eta, mundu fisikoaren eza- gutza eta interakzioaren arloan, zeharkako gaitasunak garatzeko orientabideak, baita gaitasun deduktiboak eta komunikazio gaitasunak ere.

Gida didaktikoak, irakasleen lana errazteko

Filmarekin batera txosten bat ematen da, gida didaktiko moduan. Txosten horretan nahiko sakontasunez garat- zen da gai bakoitza eta, hortaz, irakasleek beren ikaslee- kin landu ditzakete nahiz eta aurretiko ezagutza maila altua ez izan.

Gida hauek egitura hierarkizatua dute, ezagutza maila desberdinetako ikasleekin lan egitea errazteko. Gai bera oinarritzko maila batean landu daiteke aurreneko maile- tako ikasleekin edo sakontasun handiagoz ikasle aurre- ratuagoekin.

Txostenean maila desberdinetako ikasleek egin be- harreko ariketak proposatzen dira, lehen azalduetako zeharkako gaitasun horiek garatzeko ildoan.



Filmean agertzen diren gai nagusiak.

- Gauza guztiek energiari esker funtzionatzen dute.
- Jarrera energetikoak. Aurrezpen energetikoa funtsezkoa da.
- Erregai fosilak autoentzat. Ibilgailu elektrikoak.
- Eguzki energia. Aurrezpen energetikoa raikinetan.
- Energiaren erabilera egokia etxean.
- Haize energia.
- Energia berriak eta aurrezpen energetikoarekin duten zerikusia. Birziklapena.
- Erregai fosilik erabiltzen ez duten ibilgailuak baliatzea.
- Energia hidraulikoa.
- Hidrogeno gelaxkak: Kontsumo arduratsua garraioetan.
- Energia atomikoa.
- Energiaren erabilera egokia: aurrezpen elektrikoak.
- Gelan lantzeko jarduera didaktikoen proposamen adibide batzuk.

Eguzki energia. Aurrezpen energetikoa eraikinetan.

Eguzki energiaren azterketa. 2008. urtetik indarrean dagoen araudia ezagutaraztea (Eraikuntzaren Kode

Teknikoa), zeinek, ia kasu guztietan, eraikinetan eguzki energia termikoa baliatzen duten instalakuntzak jartzera derrigortzen duen. Estatuak zergatik erabaki duen araudi hori ezartzea argumentatzen saiatzea. Halaber, eraikin publikoetan energia aurrezteko neurriak ezartzeak izan- go lituzken ondorioak lantzea.

Ikasleek ahal duten informazio guztia lortzea plaka eta eguzki instalakuntzei buruz, bai termikoak bai elektrikoak (motak, ezaugarriak, etab.)

Teknologia laborategian eguzki plaken maketa xumeak egitea.

Ikastetxeko elektrizitate eta gas kontsumoa aztertzea. Zenbat energia aurreztu liteke energia aurrezteko neurri desberdinak hartuko balira?

Erregai fosilik erabiltzen ez duten ibilgailuak baliatzea.

Erregai fosilik erabiltzen ez duten ibilgailuak baliatzeak dituen abantailak. Bizikleta bideen azterketa, dokumen- tala ikusten duten ikasleen hiri bakoitzean. Noizbait era- bili al duzu bizikleta bidea? Erabili duzunean arazorik izan al duzu? Eta zer abantaila energetiko dakartza bizikleta erabiltzeak?

Eta erreserbak informazio gehiagorentzat
www.energia3d.es

93 217 30 26

ENERGÍA 3D

LA ENERGIA GELAN SARTZEN DA INOIZ IKUSI EZ ZENUEN BEZALA